

IPARTARRAK BERRIZ ERE ZAFRATURIK

TXILLARDEGI

HAN izan nintzen ni ere, joan den asteartean. Lafitte kalonjeari azken agurra ematera joana, Uztaritzen nintzen otsailaren 26 hartan. Eta hantxe gertatu nintzen ni zafraturik; eta ni bezala euskaltzale guztiok. Aspaldidanik ezagutzen nuen Mgr. Vincent, Baionako Apezpikua; eta bagenekien, bestetan ere frogatua, gure askatasunaren aldeko borrokan sartuko ez zela.

Baina Lafitte kalonjea zen astearteko pertsonaia, eta ez Baionako Apezpikua. Eta Lafitte euskaltzalea eta abertzalea ohoratzean, Iparraldeko euskaltzaleak eta abertzaleak behar ziren ohoratu arrenik.

Hots, hori egin beharrean, eta Lafitte bera ere zafratuz, inperioaren hizkuntza gelditu da gailen, Mgr. Vincent-en be-deinkazioarekin. Frantses jabetasuna utzi da gailen. Lafittek eta Euskal Herri osoak, euskara hutsezko elizkizunak merezi zituzten Uztaritzen. Baina Vincent-ek, berriro ere Prefetuaren morroi dela ongi erakutsiz, zafratu egin du Lafitte abertzalea. Aski zuen gaisorik jartzea (beste okasio askotan sekulako gaisoaldiek harrapatu izan baitute aspal-disko honetan); eta Hiriart-Urruti-ri, eman dezagun, Lafitteren gorazarrea utzi. Zergatik ez?

Saint Etienne-koa dela azaldu zaigu, eta euskaraz ikasi duela halere. Irakurri dituen esaldiak, bederen, hitsak izan dira; irain bat ia-ia. Mgr. Vincent frantses gobernuaren ordezkaria da, eta kitto. Hori ikusi dugu. Nire lagun batek ere gauza bertsua esaten zuen Franco-ren garaian: «Yo no veo por qué dicen que aquí no hay libertad.... Cuando yo me meto en la cama, pienso en lo que me da la gana; y no me pasa nada...» Mgr. Vincent ere, agian, ohean euskaraz ari. Baina Uztaritzen eta Lafitteren gorazarrean, frantsesez. Bap!

Kantuak euskaraz, bertsolariak euskaraz, euskaltzainak euskaraz. Hori bai. Baina agintariak erdaraz... Noiz arte? Noiz arte, hamaika aldiz?

ETA ipartar abertzaleak mindu dira. Jadanik minduta daude oso. Eta ez Baionako Apezpikuarekin bakarrik.

«Ahantzi egin gaituzue», bota dit zipla aspaldiko adiskide batek. «Ziek espāñulak eta gu frantsesak. Orhizen hiza? ...

Eta urteen burian, ziek ere gauza bera: gutaz ahantzi»...

Eta min eman dit horrek. Egia delako eman dit mina. Ipartarrek hori senditzen dute. Eta ez al da, nolazpait bederen, egia hutsa? Iparraldekoen laguntza behar dugunean bakarrik oroitzen bide gara lapurtarrez, baxenabartarrez eta xiberutarrez. Hemen gerla dagoenean bakarrik, hemen Franco dagoenean bakarrik, poliza gure bila ari denean bakarrik. Gero... kitto!

IPARTARRAK, hitz batez, behin eta berriz zafratzen ditugu. Ez beti gogo txarrez. Ez. Bizia gogorra da, eta hemen daramagun galbarioa, egia esan. Ipartarrek uste duten baino latzagoa da. Hau ere egia hutsa.

Baina etendura hor dago. Ipartarren ustez, ahantzi egin ditugu: «ziek espāñulak, gu frantsesak»... Ala ez?

Hots, zernahi esanagatik ere, bi arazotan agertzen da garbiki abertzaletasuna: lurraldetasunean eta hizkuntzan. Lurralde-batasunari buruz, «zazpiak bat» zaharrari buruz, bere praktikan hotz dagoena, ez da abertzalea. Eta gu, Hegoaldeko abertzaleok, Iparraldetik begiraturik bederen, oso hotz gaude. Nafarroa gabeko esparru bat onartu dugu («dute» esatea hobe, dena dela); eta esparru horretan bertan ere, LTH asmatu dugu («dute» hobe), Vascongadak hiru izan daitezke, eta ez bat. Zer esango horretaz Iparraldeaz? Denok dakigu.

Eta bigarren arazo nagusiaz, zer? Euskararen kezka ahuldu dela dirudi. Sodupek argi-eta-garbi esan du berriki PNV-ko Lehendakaria izateko euskaraz jakitea ez dela beharrezkoa. Beraz, han ere erdara hutsez mintzo diren seinale; edo-ta aldireroko instalazioak dituzte... Irakurleak hauta beza. Baina beste-tara begiratzen badugu ere, zer ikusten dugu? Euskaraz ez dakiten puntuzkoek hor dirautela, irmo; betirako «venia»ren jabe, eta beren inguruan erdararen erabilpena batera lotsarik gabe inposatzen digutelarik. Barka bezate; baina Mgr. Vincent-ek duen «venia» berbera bide daukate. AEK pasako da, HABE pasako da, mundua bera pasako da; baina berak ez dira pasako.

Hots, gure bi arazo nagusiotan horrela agerturik, nork sinetsiko du gudan Iparraldean? Zergatik sinetsiko luke?

BADANTZUT: badaude beste arazoak ere. Hor dago ekologia, hor dago sozialismoa, psikoanalisisa, droga, metafisika, sexua. Ez al dira horiek ere gure herriaren arazo?

Eta erantzunak ez du duda izpirik uzten: bai. Eta euskaldunen kezka diren aldetik, Euskadiko arazoak dira.

Baina ekologiak ez gaitu nazio egiten, eta euskarak bai; sexuak ez gaitu herri egiten, baina lurraldeak bai. Hau berriz ere esan beharra tristagarri gertatzen da: baina esan egin behar dela dirudi. Lurraldetasunik eta euskararik gabe, abertzaletasunak ez du sentidurik. Euskarak egin gaitu herri; eta lurralde honetan mamitu da herri hori, eta ez Papuasian.

Ipartarrek, ordea, LTHan murgildurik ikusten gaituzte, piperpotoarekin anaturik, erdarak itorik. Bidasoaz bestalderetik etenik. Eta ez instituzio ofizialetan bakarrik, egia aitor dezagun. Nork debekatzeko digu «gureak» omen diren organizazioetan euskara eta lurraldetasuna errespetatzea?

UZTARITZERAKO bisitaldiak, horretara, gure egoera erakutsi dit. «Ziek espāñulak eta gu frantsesak». Hazpandar hark egia zuen azkenean?

Badakit, eta badakigu. Hori ez da guztiz egia. Hor daude UEU, AEK eta Euskaltzaindia, esate baterako, mugaz bi alderdietan eratuta; eta hirurak, ez da txiripa, euskaraz ari. Baina non dira besteak?

«Jelquideak» bederen, garbi dago: PSOE-ri aurpegia garbitzen ari. GAL-en trukean, torturaren trukean, herri honek ezagutu duen gobernurik zitalenetako baten ostiko gupidagabeen trukean, orain... Flick arazoan, beste edonor baino PSOE-zaleago. Zer pentsatu behar dute Iparraldekoek eta nafartarrek?

Baina lasai egon, «si los navarros y los de Ultrapuetos no quieren venir con nosotros, haremos Euzkadi sin ellos y con la LTH». Nola sinetsiko dute gure abertzaletasunean?

Zinez, gauzak errotik aldatzen ez baditugu, gure mezuak gero eta oihartzun makalagoa izango du.

Herriak ongi baitaki frutuaren bidez ezagutzen dela arbola. Eta gurç arbolak, ni beldur, kolore horia eta gorria besterik ez du ematen.